

LABOAREN AGURRA, ANTZINAKO BIHOTZA IZARREN HAUTS BILAKATU ZENEKOA

Ariane KAMIO

IZARREN HAUTSA EGUN BATEAN BILAKATU ZEN BIZIGAI, HAUTS HARTATIKAN USTE GABEAN NOIZPAIT GINAUDEN GU ERNAI». EZUSTEKO GALERAREN ONDOAN, MIKEL LABOAREN GORPUA ERRAUSTUA IZAN ZEN SENIDE ETA LAGUNEN OMENALDI HUNKIGARRI BATEKIN.

Lurrari ondo lotuta hegan alde egin zuen Mikel Laboak, gustukoan zuen libertate haizea atzean utzi zituenekin partekatuz. Etxeko sukaldeko sutondoak kanporatzen duen bero leunaren antzera, gertukoak bere inguruan bildu zituen atzo, errauste unean. Emazte, seme-alaba, lankide eta lagun-minen begiradapeko agur xumea izan zen Errekaldeko beilatokian jazotakoa. Eguraldi kaskarrak ere su-etena eskaini zuen "Izarren hautsa" eta "Aintzinako bihotz" kantuen melodia goxoekin maiteminduta.

Astelehenean izandako olatu zurrunbiloaren ostean, atertu eta eguratsak barealdia ekarri zuen Laboaren familia eta gertukoengana. Benetan hurbil izan zituenek agurtu zuten ordu erdi eskas iraun zuen omenaldi xume baina hunkigarri batean. Bertaratu zirenen artean, Jose Luis Zumeta margolaria, Juan Mari Arzak sukaldaria, Joxan Artze idazlea eta Jose Mari Gorrotxategi konfiteroa zeuden. Haien aurretik, azken agurra ematera gerturatu ziren Pedro Miguel Etxenike zientzialaria, Gorka Landaburu kazetaria eta Patxi Baztarrika hizkuntzalari eta politikaria.

«Gizonak badu inguru latz bat menperatzeko premia, burruka hortan bizi da eta hori du bere egia. Ekin ta ekin bilatzen ditu, saiatzan hortan ezin gelditu, jakintza eta argia; bide ilunak nekez aurkitu, lege berriak noizpait erditu, hortan jokatuz bizia». Bakartasunik zurrunenean bilduta erraustu zen Laboaren gorpua, bere izaeraren ezau-



Jose Luis Zumeta margolaria, Laboaren lagun mina, azken agurrean izan zen senideekin batera.

Imanol OTEGI | ARGAZKI PRESS

garrietako bat izan zen umiltasuna ardatz hartuta. Berak sortutako bi kantuen arnaspean gauzatu zen, gehiegizko hauspork gabe, bertan egon zirenen arabera. Beilatokiko sarreran zain zegoen kazetari talde murriz baten presentzia erasokorra izan zitekeen akaso gertuko pertsonentzat. Beste batzuek, baina, agurraren osteko sentipenak azaleratu zituzten. Juan Mari Arzakek, kasu, laudorioekin jokatuz jardun zuen hedabideen aurrean, eta barruan gertatutakoaren zertzeladak margotu zituen. «Gertuko lagunak, familia, eta Euskal Herriko artearen parte diren pertsonak egon gara

bertan, benetako esentzia euskalduna bildu da», azaldu zuen. Euskararen zabalkundearen inguruan aritu zen kantaria «Euskal Herriak izan duen abeslari eta artista handientzat» jo zuen; «hain zen handia barnean zerman euskal sentimenduaren sarkotasuna, ez zuela beste hizkuntza batean zabaldu nahi izan. Munduko handienetako bat izatera irits zitekeen, ahots liluragarria zeukan, baina bera halakoa zen, sentimendu sus-traitua zuen, eta hemen geratu zen».

«Gizonen lana jakintza dugu: ezagutuz aldatzea, naturarekin bat izan eta harremanetan sar-

OMENALDIAK

Euskal kulturaren jarduten duten elkarteek omenaldiren bat egiteko asmoa dute, baina oraindik ez dago ezer erabakita. Oraingoz, abenduaren 23an Gipuzkoako Urrezko Domina eskainiko zaio, beti ere sendiak agertzen duen nahiaren arabera.

tzea. Eta indarrak ongi errotuz, gure sustraiak lurrari lotuz, bertatikan irautea: ezaren gudaz baietza sortuz, ukazioa legetzat hartuz, beti aurrera joatea». Bere ondarea izango da aurrerantzean Mikel Laboaren eta hurrengo belaunaldien arteko zubi lanak egingo dituen. Eztarriko korapiloa askatzeaz, Julio Medem zine zuzendaria adin guztietako jendearengan izan duen eraginaz mintzatu zen, eta euskal kantutegian egindako lana goretsi zuen: «Sortzaile askea zen, poza ematen zuen askatasun horretaz nola gozaten zuen ikusteak. Abangoardista zen, eta beti egiten zituen gauza berriak, ez zen inoiz zahar geratzen». Hizketarako gogo gutxi-rekin, «euskal kantutegia mendi polit batera» eraman izana nabarmendu zuen, «bera dagoen tokira» eta, «dagoen lekuan egonda, hegan joan da».

«Ez dadukanak ongi ahi daki euketzea zein den ona, bere premiak bete nahirik beti bizi da gizona. Gu ere zerbait bagera eta gauden tokitik hemendik bertan saia gaitzen ikusten: amets eroak bazterturikan, sasi zikinak behingoz erreta bide on bat aukeratzeko». Omenaldi eta ekitaldi handietatik iheskor izandakoa, Benito Lertxundik esan zuen moduan, izaera lotsatia zerraman barrenean. Bere errautsak non eta noiz zabalduko dituzten jakitea informazio eskurazina da, isilik eta ezustean joan zen, eta halaxe izaten jarraituko du. Artearen munduan, ordea, litekeena da bere oroimez ekitaldiren bat antolatzea. Durangoko Disko eta Liburu Azokaren atarian, Gerediaga Elkartek buruan dauka omenaldiren bat egitea, baina oraindik ez dago ezer erabakita. Abenduaren 23an, bestetik, Gipuzkoako Urrezko Domina hil osteko errekonozimendu gisa eskaintzea aurreikusten da. Denborak esango du, baina, etorkizunak zer prestatu duen.

«Gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira besteak, burruka hortan irauango duten zuhaitzardaska gazteak. Beren aukeren jabe eraikin ta erortzean berriro jaikiz ibiltzen joanen direnak: gertakizunen indar ta argiz gure ametsa arrazoi garbiz, egiztatu-kodutenak».

Julio Medem:

«Sortzaile askea zen, poza ematen zuen askatasun horretaz nola gozaten zuen ikusteak»

Juan Mari

Arzak:

«Euskal

Herriak izan duen abeslari eta artistarik handiena izan da»

Euskararen Eguna

kontzertua

Gose

Betagarri

Une

Ospatu Euskararen Eguna erritmo bizian. Zure musika eta teknologia berriak eszenatoki gainera igoko dira, eta zeuk izango duzu hitza.

Kontzertu desberdin bat nobedade interesgarriekin, hona hemen batzuk:

- Aukera ezazu kontzertuaren amaiera telefono mugikorraren bidez bozkatzu.
- Bidali SMSak* kontzertuko pantaila handian proiektatzeko.
- Konekta zaituz zure lagunekin kontzertua zuzenean jarrai dezaten.

Eta etorri ezin baduzu, jarraitu kontzertua zuzen zuzenean, web orriaren bitartez:
www.bizkaia.net/euskara
www.bilbao.net/euskera

Gozatu euskaraz!

Mezuen prezioa: 15 zentimo mezu bakoitzeko.

abenduaren 5ean
20:00etan
plaza berrian
bilbon

B
Bilbao
 UDALA
 AYUNTAMIENTO
 Euskeru Sála
 Area de Euskera

BFA
DFB
 Bizkaiko Foru
 Aldundia
 Diputación
 Foral de Bizkaia

euskaltel

MIKEL LABOAREN OROIMENEZ

Koloretako kantak

Kirmen Uribe
Idazlea

Txikitako oroitzapen lausoen artean horixe da Mikel Laboa. Eta ez etxean bere musika jartzen zutelako soilik. Badut bestelako oroitzapenik ere. Behin, umea nintzanean, kartelaz josi zituzten herriko hormak, eta gogoan dut arrebari galdetu niola ea zer zen kartel koloretako hark iragarri nahi zuena. Arrebak esan zidan Mikel Laboaren kontzertukoak zirela. Ez nintzen aldi hartan kontzertua ikustera joan, txikiegia bainintzen horretarako, baina Zumetaren kartel koloretako hura betiko geratu da nire oroimenean.

Niretzat, Mikel Laboa eta Zumeta bat izan dira beti. Eta Zumetaren margoen modukoa begitandu izan zait beti Mikelen musika, kolore, ñabardura askotakoa. Mikel Laboaren musikak ez du izan ildo bakar bat, eta eskertzen da hori, ez da kolore bakarrekoa izan. Bere diskoetan kanta tradizionalak datoz alde

batetik, eta beste alde batetik berak sortutako kanta berriak, hainbat olerkariren poemak aintzat hartuz. Eta azkenik, Lekeitioak daude, abangoardistak erabat. Melodia zaharrak eta melodiarik gabeko gailuak. Ez dakit nola egiten zuen Laboak, baina horren desberdinak diren hiru mundu horien artean oreka lortzen zuen, diskoak natural entzuten dira, inolako trabarik gabe. Beharbada Laboak berak ere naturaltasunez bizi zituelako mundu desberdinok bere baitan. Pertsonok ere alde baka-rrekoak ez garelako.

Esaten da Laboak ez zituela idazten bere kanten hitzak, besteen hitzak erabiltzen zituela, baina niri berdin zait. Mikel Laboa maisua zen letrak aukeratzen. Eta aukeratzen jakitea ere artea da. Artze, Brecht, Lete, Sarrionandia, Atxaga. Berak idatzi izan balitu bezala interpretatzen zituen idazleen letrak. Bere egiten zituen poemak. Hainbeste barneratzen

Niretzat, Mikel Laboa eta Zumeta bat izan dira beti.

Eta Zumetaren margoen modukoa begitandu izan

zait beti Mikelen musika, kolore, ñabardura askotakoa.

Mikel Laboaren musikak ez du izan ildo bakar bat

Poema gaixoak Laboaren musika gabe ezerezean

geratzen dira, herabe, hegorik gabeko. Horixe

gertatzen da "Gure bazterrak" edo "Lili bat" olerkiekin.

Benetan olerki zoragarriak. Baina paperean ikusita

hain dira txikiak

zituen, eta horren ondo, ezen behin kantua entzunda, poema musikari lotua geratzen den, halaberharrez.

Poema gaixoak Laboaren musika gabe ezerezean geratzen dira, herabe, hegorik gabeko. Horixe gertatzen da "Gure bazterrak" edo "Lili bat" olerkiekin. Benetan olerki zoragarriak. Baina paperean ikusita hain dira txikiak. Aitzitik, Mikelen musikarekin beste bizitza bat hartzen dute. "Izarren hautsa" Xabier Leteren olerkiarekin egin zuen irakurketa esanguratsua da, Letek berak poemari ikusi ez zion musika atera zion Laboak, ahaztu ezinako kanta bihurtzeraino. Ez da egon gure artean poemek barnean daramaten musika hori ateratzen horren iaioa izan den musikaririk.

Lekeitioak nondik sortu zaizkion azaltzeko Laboak gerra garaian Lekeitioan emandako egunak ekartzen zituen gogora. Ume bat baino ez zen orduan. Eta haurtzaroko oroitzapen horietatik idatzi zituen Lekeitioak. Ni bera bezain txikia izango nintzen Zumetaren kartela ikusi nuenean, txiki-txikia Laboaren kantak entzuten nitueanean. Eta ziur nago, idazten jartzen naizen bakoitzean atera egiten zaizkidala barrutik bere koloretako kanta haiek, hortxe daudela nire ondoan, eta egongo direla.

Mikel Laboaren agur txikian

Joxemari ITURRALDE
Idazlea

Euskaldun askori gertatu zaio eta niri ere bai: bizitza osoan lagundu nau Mikel Laboak. Erosi nuen lehen disko euskalduna berea izan zen (nire bizitzan erosten nuen bigarrena). Nik orduan 12-13 urte izango nituen eta uda hura Errioxako herri batean pasatu nuen aitonaarekin. Ostaturko gelan entzerraturik behin eta berriz jartzen nuen EP hura tokadisko eramangarri kaxkar hartan. Egun osoan, behin eta berriz, entzuten nituen "O, Pello, Pello", "Aurtxo txikia", "Amonatxo"... Hasiera batean uste izan nuen aitona leihotik behera botako zidala tokadiskoa halako batean, baina ez, segituan ohartu nintzen bera ere, ni bezala, hunkituta geratzen zela abesti haiek entzun orduko; areago, ni baino gehiago hunkitzen zela, hainbesteraino non batzuetan malkoak ere isurtzen zitzaizkion disimulatu ezinik.

Izan ere, Mikel Laboaren abestiak barru-barruraino, eta zuzenean gainera, joaten diren horietakoak dira. Esango nuke bere musika izango dela euskal memoria kolektiboan itsatsita gehien iraungo duena, bere estilo berezi eta aparteko horrekin ia perfekzioa lortu baitu, eliza erromaniko txiki, goxo, abegikor baten antzera. Laboaren musikak ez ditu maite katedral eskerga barroko anpulosoak, are gutxiago eraikin churrigueresko harrotu horiek. Bere musikak, ukitu minimalista horrekin, barruraino eramaten gaitu, muineraino eta han babestu egiten, oreka bat lortu arte, geu garenaren eta kanpoko modernitatearen artean zubi lana egin ez. Laboak garbi erakutsi digu moderno eta abangoardista izan daitekeela, bertako espirtua, tradizioa, kultura landuz urregin baten modura arituz. Horregatik iraungo du bere lanak, ermita txiki erromanikoek irauten dutelako.

Artista handiaren tamainakoa izan da bere gizatasuna. Gizon maitagarria benetan, pertsona abegikorra, lagun handia. Dohain horiekin nekeza izan ohi da artista asko aurkitzen. Beti laguntzeko prest. Berak jarri ninduen harremanetan Raimon abeslari katalanarekin, honek Kataluniako telebista batean programa bat zuzentzen zenez, nik kolaborazio literarioak egin nitzan. Mikel bakarrik zen gauza, artista gehiagorekin bilduta egonik, denak alde batera utzi eta zure alaba txikiari kasu egin eta hizketan hasteko, denborari kasurik egiteke. Berdin zitzaion jende helduak zer esango, berak han jarraitzen baitzuen gustura zazpi urteko gure alabarekin hizketan. Pertsona bakoitzaren mailan jartzen bazekien, denentzat zeukan beti hitz goxo pare bat, denei egiten zien kasu eta edozeinek esandakoa ere inportatzen zitzaion, halako arreta jartzen baitzuen edonorekin. Horrelako

Artista handiaren

tamainakoa izan da

bere gizatasuna. Gizon

maitagarria benetan,

persona abegikorra,

lagun handia. Dohain

horiekin nekeza izan ohi

da artista asko

aurkitzen

pertsona bat zaila da aurkitzen, batik bat artisten munduan, hainbeste harropuz eta egolatra biltzen duen fauna klase horretan.

Artista bikaina, pertsona maitagarria eta goxoa, lagun handia. Opari bikaina ezagutu dugunontzat, «una riqueza de lujo», berak adieraziko lukeen moduan. Ezin da gehiago esan.

Anekdotak pertsonal bat, irudi kuttun bat, beti gogoan eramango dudana: Bernardo Atxagaren etxean gaude adiskide batzuk. Mikel Laboa Atxagarekin bildu da, abesti batzuen letrak errepasatu behar dituztelako. Atsedean tarte batean, Mikel desagertu egin da. Eta gure alaba (orduan 13-14 urteko neskatua) ere bai. Alabak lehenago esan dio Mikeli gitarra ikasten ari dela. Orain biak desagertu dira saloitik. Hasi naiz beraien bila eta ate zirrikitutik begira hantxe aurkitu ditut beste gela batean: Mikel eta gure alaba gitarren laguntzaz Juan Carlos Perez-en "Lau teiltu" abestia ari dira kantatzen. Ez zaizkit inoiz gehiegi gustatu argazki kamerak, baina aitortu behar dut egun horretan damutu egin nintzela une hori ez kaptatu izana.

Ulertzen dut, eta konpartitzen, Marisol eta familiaren samina eta aparteko galera. Benetan.

Laboa, zortzietan Bulean

Xabier Silveira
Bertsolaria

Monikak telefonoz Mikelena esan didanean, segituan etorri zait burura egun hura, Pelosen etxean, badakizue, Play Station-ean jostatzen egoten ginen leku goxo, apologiko, gehienetan ilun eta beti nazkagarri egoten zen hartan. Pelos eta biok geunden sofán, bai, bixkiak ordurako Zumbeltz idekitzera joanak ziren. Guk bertan jarraitu genuen, egurrean, elkarri zeinen txarrak ginen leporatzen denbora gehiago pasatuz botoiei modu egokian ematen baino. Lau-bost diska ari zen bueltaka, petak bezala, bata bestearen atzetik. Erretzeari uztea pentsatu nuen arratsalde hartan, baina Pelosen hitzek ideia burutik aldendu zidaten, orain oroitzen dudanez. «Dago guay hau eh, mola, ez dakit, segun ze moment pillatzen dizun ezta, baina guay dago». Burua baiezkoko eskas batek mugitu zidan, nik gola a guebo neukan. Baina hutsegin nuen eta Pelosi berdin-berdin, bost axola. «Da un puntazo del kopon tío, tipo hau, ibiltzen da hor Igeldon, con sus coleguitas...». Ez nekien nondik zihoan Pelos, derrepente Laboa sartu zitzaion buruan eta bera berera.

Arrozioa iruditu zitzaidan, hausnarketa kurioso Pelosekin egiteko. Pentsatzen zue-nean gustatzen zitzaidan eta Espainan ipini nuen berak Alemanian egindako konparaketa; Extremoduro eta Sabina... «¡Puuuta comparación! Aber zu, Extremo da kañero nire aita den bezala pikoletu, leéte las letras, eta Sabina bueno, no te pases, si es un fa-

«Da un puntazo del kopon tío, tipo hau, ibiltzen da hor Igeldon, 'con sus coleguitas'...». Ez nekien nondik zihoan Pelos, derrepente Laboa sartu zitzaion buruan eta bera berera

Behin eta berriz kantatu dugu abesti berdina, telefonoa moztu den arte, behin eta berriz, bera negarrez, biok kantari: «Kantuz sortu naiz eta kantuz nahi bizi...»

txa. El Laboa grabatu du la de... 'Denak hala inor ez, denak hala ezer ez...'. "Izarren hautsa", eta mogollón tío, no te pases, Sabina tu, Mikel Laboaz ari gara txabal! Txapatzten dutela edozein garito Ikatz kalean dagoela petatua manifa bat eta gero, jartzen dute Mikel Laboa eta ez dago inor ez dakiena kanta hori, berdin du zein, berdin du. Himnos, badaude batzuk direla puuutos himnos, ereserkiak, como diría Unai. Eta Lekeitioak ya son la caña, pureta guttik flipatzen ta bera hor... tipo hori da un titán!».

Oraintxe bukatu dut Pelosekin bigarren deia, kantuz. Monikak «Arrats, Mikel Laboa hil da» esan bezain pronto, agurtu eta eskegi eta di-da jo diot telefonoa Pelosi. Behin eta be-

rriz kantatu dugu abesti berdina, telefonoa moztu den arte, behin eta berriz, bera negarrez, biok kantari: «Kantuz sortu naiz eta kantuz nahi bizi, kantuz igortzen ditut nik penak ihesi; kantuz izan dudana zerbeit irabazi, kantuz gostura ditut guziak iretsi; kantuz ez duta beraz hiltzea merezi? Kantuz eman izan dut zontzuetan berriak, kantuz atseginekin erranez egiak; kantuz egin baititut usu afruntuiak, kantuz aitortzen ditut nere bekatuak, kantuz egiten ditut nik penitentziak».

«Kantuz ehorts nezate hiltzen naizenian, kantuz ene lagunek harturik airian; kantuz ariko zaizkit lurrean sartzian; kantuz frango utziko diotet munduan, kantuz har ditzen bethi nitaz orhoitzian».

Nahiz eta heriotza helduko zaidala jakin...

Paddy Rekalde
Idazlea

Musika kontuetan egin nuen lehen erosketa (beste guztia lagunek grabatua zen, edota irratitik bertatik, esatariaren agurrak, azalpenak zein eguraldiaren berri ematearekin batera) ondo gogoan daukat: The Specialsen bigarren diskoa eta Mikel Laboaren "Lau-Bost" izeneko. Bat baino gehiago harrituko zen halako koktel baten aurrean. Zelan batu apal berean zuri-beltz haien erritmo indartsu eta beroak Laboarenekin? Erraza, lagunok, Laboaren ere, bere estiloan, jakina, indartsuak eta beroak ziren. Entzuleekin ederto lotzen zekitenak. Are gehiago, belaunaldi ezberdinetako entzuleekin ederto lotzen jakin dutenak. Eta hori ez da lan makala.

Mikel Laboak, nire iritzi, euskal musikaren bestelako ikuskera bat sortu eta zabaldu du, tradizioz modernizazioa itzulunguruka ibili zen trebe eta gustu handiz. Horrela sentitu nuen nik behintzat. Herri kanta asko, galtzeko zorian zeudenak, biziarazi egin zituen, eta horiekin batera bere garaiko poesia lan asko musikatu zituen, bai hemengo hainbat idazlek bai kanpoko beste batzuek sortutakoak. Sentsibilitate berezia zeukan, eta hori ez du inork zalantzan jarri. Artze, Lete, Aresti, Sarrionandia eta halakoak agertzen dira bere kantetan, eta horiekin batera Bertold Brecht bezalakoak.

Eta aitortu behar dut hauen berri, neurri handi batean, berak eman zidala. "Langile baten galderak liburu baten aurrean" edota "Nahiz eta heriotza" bezalako kantuek bihotz zein burmuineko begiak zabaldu zizkiguten gutako askori. Mikel Laboak ondo errotuta zeukan bihotza, baina, aldi berean, kostaldeko faroek bezala, argitu egiten zizkigun bestelako giza paisaje batzuk. Zentzu horretan, uste dut bere garaiko semea dela Laboa, eta horretan Arestirekin akordatzen naiz; garaiko semea, bai, baina denbora alde-

tik ere bidaiaria, urtez urte eta munduari begiratzeari utzi barik bere burua ondo baino hobeto egokitu duena. Ez dakizu, Laboa, zenbat zor dizugun, zenbatetan jarri dizugun bihotza ikara batean.

Eta, zehatz-mehatz, adinaren aldetik gure belaunaldiko izan ez bada ere, gure ondoan izan dugu beti, kultura arloko erraldoiak bezala. Beraz, Laboa, zer axola adinak, simaurrek, ile urdinak eta halakoek, bihotzetik zeru berbera ikusten badugu. Zumetaren margoek jantzi egin zuten Laboaren eta belaunaldi berrien arteko zubi lana, "Txerokee", haren hainbat abestiren bertsioak.

Eta nire ustez, leherketa antzeko zoriona ekarri zuen zubi lan hark, zilbor-hesteak eten barik jarraitzen zuela, nolabait esatearren, argitzen zuelako. Eskertu egin nuen hura, zelan ez, besarkada baten balioa ikusten niolako, eta besarkadak, zorionez, bizirik daudenei ematen zaie-lako. Ez zen, askotan egiten den bezala, kanposanturako utzi omenaldia, ez, orduko Euskal Herri gazteak argi utzi zuen kontua, Mikel Laboaren lanak segida zuela belaunaldi berrietan. Eta hori ez da gutxi, aizue. Itzela, esango nuke nik.

Hasieran aipatu dudana "Lau-Bost" disko bikoitz hartan ere Zumetak bideratu zuen diseinua, niri orduan oso bitxia egiten zitzaidana. Gerorako ulertu nuen Laboa benetan berezia zela adierazten zuela, mundu oso propio bat eskaintzen zuena, aurreko zein ondorengo lanak bezain zoragarria, Lekeitio saileko haiek bezain ikaragarria. Itsasoa ikusten da barruan, eta lehorra, eta Gardatoko etxea, han Lekeitio herritik gertu. Handik Mikel Laboa umeak, faxistek eragindako ihesaren ostean, Gernika ikusiko zuen, edo hobeto esanda, Gernika bonbardatuaren su ikaragarria, sugarrezko amesgaizto hura. Gardataraino helduko zen argi erraldoi eta beldurgarria, eta zeinek daki hark eragina izango ote zuen Mikel Laboaren lanetan...